

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2013/2014 ikasturtea

GENEROAREN TRATAERA IKONOGRAFIKOA ETA IDATZIKOA “URTXINTXA 4 URTE” TESTULIBURUAN

Egilea: Carolina Ibarondo

Zuzendaria: Karmele Perez Urraza

Leioan, 2014ko ekainaren 12an

© 2014, Carolina Ibarondo

AURKIBIDEA

Sarrera	4
1. Marko teorikoa.....	5
1.1. Testuliburua hezkuntza-sisteman.....	5
1.1.1. Testuliburuaren eragin ideologikoa.....	6
1.2. Curriculuma eta testuliburua Euskal Herrian.....	7
1.3. Ikonografia testuliburuetan.....	8
1.4. Generoa, sexua, hezkidetza eta curriculuma Euskal Herrian.....	10
2. Metodologia.....	13
3. Lanaren garapena.....	14
4. Emaidzak eta ondorioak.....	16
5. Erreferentzia bibliografikoak	25

ERANSKINAK

1. <i>eranskina</i> . Testuliburuaren azala.....	28
2. <i>eranskina</i> . Testuliburuaren 1. go orrialdea	29
3. <i>eranskina</i> . Testuliburuaren 2. orrialdea.....	30
4. <i>eranskina</i> . Testuliburuaren 3. orrialdea	31
5. <i>eranskina</i> . Testuliburuaren 4. orrialdea.....	32
6. <i>eranskina</i> . Testuliburuaren 5. orrialdea.....	33
7. <i>eranskina</i> . Testuliburuaren 6. orrialdea.....	34
8. <i>eranskina</i> . Testuliburuaren 2. zenbatu gabeko orrialdea.....	35
9. <i>eranskina</i> . Testuliburuaren 3. zenbatu gabeko orrialdea	36
10. <i>eranskina</i> . Testuliburuaren 7a. orrialdea.....	37
11. <i>eranskina</i> . Testuliburuaren 7b. orrialdea.....	38
12. <i>eranskina</i> . Testuliburuaren 8. orrialdea.....	39
13. <i>eranskina</i> . Testuliburuaren 9. orrialdea.....	40
14. <i>eranskina</i> . Testuliburuaren 10. orrialdea.....	41
15. <i>eranskina</i> . Testuliburuaren 11. orrialdea.....	42
16. <i>eranskina</i> . Testuliburuaren 12. orrialdea.....	43
17. <i>eranskina</i> . Testuliburuaren 13. orrialdea.....	44

Generoaren trataera ikonografikoa eta idatzikoa “Urtxintxa 4 urte” testuliburuan

Carolina Ibarrodo Torres

UPV/EHU

Gradu amaierako lan honetan, “Urtxintxa 4 urte” testuliburuaren azterketa egin da. Ikerketaren helburua: generoaren trataera ikertzea testuliburuko ikonografian eta idatzizkoan. Alde batetik, Haur Hezkuntzako testuliburuetan, emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunari erreparatu zaio. Eta, horretarako, marrazkiak, argazkiak eta bertan agerturiko testu idatziak izan dira kontuan hartuak, besteak beste, emakumezkoen eta gizonezkoen presentzia eta maiztasuna, pertsona eta pertsonaien garrantzia eta orrialde mistoen agerpena. Bestetik, testuliburuan agertzen diren lanbideei dagokienez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, lanbide motak eta lan eremua aztertu dira. Azkenik, generoari loturiko testua ikertu da. Horiek horrela, haurren ikasketa prozesuan testuliburuek daukaten garrantzia kontuan hartuta, nabarmendu da, eta nahitaezkoa ikusten da, batetik, edukien eta balioen eguneratzea eta, bestetik, aldaketarako urratsak ematea, testuliburuaren bidez sexu bazterketarik eman ez dadin.

Curriculum, testuliburua, generoa, ikonografia, hezkidetza

Este trabajo de fin de grado tiene como objetivo el análisis de los contenidos en los libros de texto, desde el punto de vista del género y la relevancia que tiene que eviten todo tipo de sexismo, especialmente teniendo en cuenta que éste/a, es alumno/a de enseñanza obligatoria, y por lo tanto particularmente influenciado. Para ello, se ha realizado un exhaustivo análisis de contenido de la iconografía, y del texto, y de modo especial de las profesiones que se proyectan en cada uno de los personajes del libro de texto “Urtxintxa 4 urte”.

Curriculum, libro de texto, género, iconografía, coeducación

The aim of this dissertation is to analyse, from a gender point of view, the content of textbooks and the relevance it has to avoid all kinds of sexism, especially considering that this, is a student compulsory education, and therefore particularly influenced. To do this, we have conducted a comprehensive content analysis of iconography and text, and especially of the professions that are projected in each of the characters in the textbook "Urtxintxa 4 urte".

Curriculum, textbook, gender, iconography, co-education

Sarrera

Gure gizartean lanbidearen hautaketari buruzko ideia estereotipatu asko ematen jarraitzen direnez, gaur egun ere, beharrezkoa iruditu zait gai honi buruzko azterketa egitea. Hori horrela, haur hezkuntzako testuliburuak oinarri hartuta, testuliburu bat hautatzea erabaki dut egoeraren garrantziaz jabetzeko. Hau guztia kontuan hartuta, lan honetako helburu nagusia, testuliburuan dauden emakumezko eta gizonezkoen lanbideen artean ematen desberdintasun nabarmena aztertzea da, hau ere oraindik ematen den edo ez erakusteko.

Testuliburuetan agertzen den ikonografiari buruzko ikerketa bat egin dut, “Urtxintxa 4 urteko” Haur hezkuntzako liburu batean agertzen diren emakumezko zein gizonezko lanbideen ikonoak eta idatziz datorrena aztertu dut, hain zuzen ere.

Aipatzekoa da, Euskal Herriko iparraldeko zein hegoaldeko ikerketa gauzatzea gustatuko litzaidakeela, izan ere oso interesgarri iruditu baitzait. Baina lan hau mugatua denez, ez dut izan aukerarik zonalde guztien ikerketa burutzeko. Hori horrela Gradu Amaierako lana egiteko, Euskal Herriko hegoaldeko testuliburuaren eta curriculumen ikerketan zentratu naiz, batik bat, eta horren barruan liburu bat hartu dut adibidetzat.

Lan hau bost ataletan dago egituratuta. Lehendabiziko atalean marko teorikoa dago. Atal honetan, testuliburuari, ikonografiari, curriculumari eta generoari heldu diet.

Bigarren atalean, lana jorratzeko erabili dudana metodologia agertzen da. Atal honetan, hurrengo galderen erantzunak aurki daitezke: Zergatik egin dut?, zer egin dut?, zer egingo dut? Frogatu nahi ditudan hipotesiak idatzi ditut eta aurreikusten dudana emaitza.

Hirugarren atalean, lanaren garapena agertzen da. Atal honetan, testuliburuaren hustuketa, emaitzak lortzeko jorratuko ditugun atalak eta arloak batzuk aurki ditzakegu.

Laugarren atalean, ondorio orokor batzuk agertzen dira, ikerketa-lanaren emaitza gisa eta prospektiba.

Azkenik, gehigarri modura, bibliografia aurkitu daitezke, eta honen ostean eranskinak.

1. Marko teorikoa

1.1. Testuliburua Hezkuntza-sisteman

XIX. mendeko, hezkuntza-sistema estatala sortu zenetik, testuliburuak oso objektu konplexuak izan dira (Perez Urraza 2004: 65). Hauek, tresna didaktikoak izateaz gain tresna ideologikoak ere badira. Garai batean, testuliburuak zeukaten garrantzia ikusirik, politikariek ikasleen sozializazio politikorako erabili izan zuten. Harrezkero, testuliburuaren onarpena hezkuntza-sistema estatalek ezartzen duten legediaren barne egon da. Horrela testuliburua botere publikoaren kontrolpean egon da ordutik ona. Espainiar estatuan LOGSE ezarri arte, behientzat, testuliburua argitaratzeko baimendu behar baitzuen Hezkuntza Administrazioak.

Choppin-en ustez, testuliburua -berak eskuliburua dio-, tresna pedagogikoa izateaz gain, botere tresna dela esaten du Perez Urrazak dakarrenez (2004: 66). Hortaz, esan dezakegu, testuliburuak direla gure gizarteetako, gure kulturako derrigorrez erabili behar ditugun testu bakarrak (Cuenca & Laborda, 2000: 44), eta testuliburua dela, sormen intelektualari dagokionez, Estatuak eta Erkidego Autonomikoek alde aurretik kontrolatzen duten ia kasu bakarra. (Area Moreira, 1999: 205), testuliburuaren edukia indarrean dagoen curriculum ofizialak baldintzatzen baitu.

Euskal Herriko Hegoaldean testuliburuak merkaturatu baino lehen, Administrazioak ikuskatu eta onartu behar ditu, LOE legea baino lehen baina hau horrela gertatzen zen. Ordutik hona, argitaletxeek baldintza batzuk bete beharko dituzte testuliburuak kaleratu ahal izateko, baina kasu honetan administrazioek ez dituzte testuliburuak zertan ikuskatu behar argitaratu baino lehen. Perez Urrazaren (2004: 67) eskutik esaten dugu, argitaletxeak izango direla, curriculum ofiziala interpretatu, birdefinitu, helburuak eta edukiak hautatuko dituztenak eta irakasleek ikasgelan garatzeko prozedura eta estrategiak ezarriko dituztenak.

Gaur egun, testuliburuarekin, eskolako curriculumaren zati handi bat lantzen da. Bi erabilera mota izan dezake irakaslearen partetik: alde batetik, asignatura edo diziplina bat lantzeko eran eta bestetik, asignatura bera prestatzerakoan, irakasleak oinarriko tresnatzat hartuta (Perez Urraza, 2004: 106).

1.1.1. Testuliburuaren eragin ideologikoa

Gaur egun, ikasgeletan gehien erabiltzen den tresna testuliburuak dela jakinda, esan dezakegu, curriculumaren zati handi bat honen bitartez jasotzen dela.

Hori horrela, testuliburuaren bitartez, zein eredu, zein eduki zer gizarte, zer kultura, zer ikasle, zer irakasle... aztertu beharko litzateke, eta honekin batera, testuliburuak zer nolako baloreak bultzatzen duten (Perez Urraza, 2003: 176).

Testuliburuak garrantzitsuak dira asko erabiltzen direlako (arrazoi kuantitatiboa) eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan eragin handia dutelako (arrazoi kualitatiboa).

Perez Urrazak dakar (2004: 107), Arnay-k (1991) esaten duela gauza baten ezagutza zerbaiten inguruan izaten dela, eduki baten gainean, eta eduki horren izaerak mugatuko du zein balorazio edukiko duten gure ezagutzan, azken finean, ezagutza eraikitzekeko prozedurak edukien menpean daudelako. Horren ondorioz, oso garrantzitsua da testuliburuak helarazten dutena eta hori nola egiten duten, hauek ezagutzaren jasokuntzan eragin handia baitaude.

Michael Apple-k (1996: 63) gehiago dio, esaten duenean liburua dela “el artefacto que juega el papel más importante en la definición del sujeto social cuya cultura se enseña”. Applen ustez (1996: 66) testuliburuaren edukia hautatua da eta kultura irudikatu eta gauzatzen du ondorengo testuan dakarrenez:.

El libro de texto tiene sentido, y puede cumplir sus funciones, en la medida en que presenta y organiza pedagógicamente esa cultura seleccionada, de tal modo que sea apta para que el profesorado la enseñe y el alumnado pueda aprender de y con ella. En términos estrictos, entonces, puede decirse que los libros de texto representan y materializan la cultura y el conocimiento que se considera necesario y que además está legitimado como real y verdadero. Es a esto a lo que Raymond Williams denominó la “tradición selectiva”: la selección hecha por alguien, la visión de alguien respecto a lo que cabe considerar legítimo en materia de conocimiento y de cultura.

Esandakoagatik, aipatzekoa da ezagutza eraikuntza soziologikoa eta historikoa dela. Ezagutza ez da errealitate bat, baizik berataz dagoen ikuspuntua. Zentzu honetan Nieves Blancok dakar (2001: 50) Hutton eta Mehunger egileek aipatu dutena testuliburuaren eragina ezagutzaren eraikuntzan: “No es exagerado, decir que, por lo que representan y por el contexto en que lo hacen, su influencia es privilegiada en tanto que ofrecen a las personas jóvenes una versión uniforme, aprobada y hasta oficial de lo que deben creer”

Ondorioztatu daiteke, testuliburuan eduki batzuk baztertuz edo beste batzuk agertuz gero, argialetxe batek transmititu nahi duen ideologia eta baloreak transmititzen dituela.

1.2. Curriculum eta testuliburua Euskal Herrian

Curriculum ikaskuntza-prozesu bat osatzen duten helburu, gaitasun, metodo eta ebaluazioen multzoa da. Curriculum hezkuntzaren antolaketaren funtsa da. Kontzeptu konplexua da, besteak beste, gizartearekiko loturak, pedagogia-sistemaren ezaugarriak eta hezkuntzaren praktika eta bilakaera bera islatzen dituena.

Legeak Curriculum ofiziala ezartzen du baina ikastetxe bakoitzak bere egokitzapena egiten du bere hezkuntza proiektu propioa egiten duenean. Joakim Arenas-ek eta María Areny-k (1997: 29), honako hau esaten dute Ikastetxeko hezkuntza proiektuari buruz: ikastetxeak, sistema baten barnean diharduten hezkuntza erakundeak diren neurrian, sistema horren hezkuntza proiektu orokorraren barnean aritu behar dira. Baina ikastetxe bakoitzak, egoera soziokultural zehatz batetan kokatuta dagoenez, ezaugarri ezberdinetako ikasleak izanik, eta giza baliabide eta bitarteko material zehatzak izanik, hezkuntza proiektu orokorra bere egoerara egokitu eta moldatu beharko du. Horregatik, gelak bakoitzak gelako programazioa du. Programazioak irakasleek burutzen dituzte, beti ere curriculumean dauden baldintzak jarraituz.

Beste aldetik, aipatu behar da hezkuntza administrazioek curriculum ofiziala ezartzen duten curriculumaren bidez euren xedeak legitimatzeko balio duten filosofiak eta abiapuntu filosofikoak adierazten dituztela.

Autore batzuen (Engler, Richards, Tylor) iritziz, curriculum planifikazioa da, irakaskuntza bideratzen duena. Kasu honetan, zer, nola eta noiz irakatsi eta ebaluatzeaz gain, erabiliko diren baliabide material zein metodologikoak ere sar daitezke; beste batzuen ustez, eta modu orokorrago batez, curriculum eskolak eskaintzen dituen ikaskuntza-esperientzia guztien multzoa da (Bilbao, 2004: 87).

Hala ere, aipatzekoa da, irakaste prozesua burutzeko hiru jarraibide badirela:

- 1) Curriculum ofizialaren bidezkoa, hau da, idatzita dagoen curriculum jarraitzea.
- 2) Curriculum nuluaren bitartezkoa, irakasten ez dena (Eisner, 1994), edukietatik kanpo geratzen dena da dio Bilbaok (2004:87).

- 3) Ezkutuko curriculumaren bidezkoa. Jacksonek (1995) ezkutuko curriculumaren duen garrantziaz konturatu zen, ideologia, agintea eta arau konkretuak curriculum honen bitartez lantzen baitira (Bilbao, 2006: 88). Curriculum honek “implizituki funtzionatzen du, kultura-dukien, errutinen, elkarrekintzen eta eskola-zereginen bitartez. Ez da irakasle taldearen plangintza konspiratzailearen emaitza. Baina, normalean, gure gizartearen dimentsio eta berezitasun nagusien erreprodukzioa izaten du emaitza” (J. Torres, 1992).

1.3. Ikonografia testuliburuetan.

Kode ikonografikoaren aldaketa, XX. mendearen erditik gora emango da, garai horretara arte tamainaz txikiak, kolore bakoak eta gutxi erabiltzen baitziren. Honen hasierako aldaketa, marrazki eskematikoaren erabilerak markatuko du, harrera ona lortuz maila guztietan.

Begoña Bilbaoren lanatik jasotzen dugu, irakaskuntzako testuliburuak material didaktikoa adierazteko erabiltzen den modu jakin bat da, eta irakaskuntzarako eginak daude, hain zuzen ere. Hori dela eta, testuliburu hauek irakaskuntzarako erabiltzen dira hartzaile predestinatua eta ezaugarri propioak edukiz. Liburu hauen lanketa gainera ez da bat-batekoa izaten, kontsultarako hiztegi edo entziklopediak izan ahal den moduan. Eskola curriculum garapenerako beharrak kontuan hartuta aztertu eta landutakoak dira (2004: 252).

Denboraren poderioz, liburu hauen lanketa eginez formatuak aldatuz joan dira. Begoña Bilbaok (2004: 252) esaten du, orain arte garrantzi handiagoa eman zaiola testu idatziari ikonografiari edo tipografiari baino. Erabili beharreko hiztegia, estiloa, testuaren egitura edo ulergarritasuna izanik egileei axola zitzaiena. Bilbaok esaten du (2004: 252), Egil Borr Johnsen-ek bere *Libros de texto en el caleidoscopio* liburuan dakarrela, Woodward-ek diona, hots, testu idatzia eta irudien arteko erlazio aztertuta, ikonografiaren kopurua handiagoa dela irakaskuntzako lehenengo mailatan goi mailatan baino. Hau da, gero eta gorago joan irakasmaitan, gero eta testu idatzi gehiago eta ikono gutxiago agertzen dela.

Aipatu bezala, urte askotan idatzizko kodeari eman zaio garrantzia, testuliburuaren zatirik ikertuena hau izanik. Maria Paz Prendes Espinosak dio (1998: zg), badirela

autoreak testuliburuetan agertzen diren irudiak izugarrizko garrantzia eta funtsezko elementutzat hartzen dutenak (Delannoy, 1981; Colás, 1989; Costa, 1990a; Deforge, 1991). Hala ere, beste batzuek, testu idatzia da informazioaren euskarri nagusia, bera delako ildoak markatuko duena eta ikonoak testuaren laguntzaileak: testua da informazioa eskaintzen duena, irudia osagarri bat besterik ez da (Buj, 1973; Maillo, 1973; Duchastel, 1978; Kozma, 1991; Terlow y Woudstra, 1993). Ikonoak motibatze edo informazio idatzia argiago ulertzeko baino ez duela balio diote batzuek, ahaztuta irudiek ulermenerako daukaten garrantzia Habermas-ek (1981) dioen legez.

Lehen anonimoak ziren irudigileak, eta orain, berriz, gero eta garrantzia emango zaie, testuliburuetan beren izena agerturik. Baina, gure artean testuliburuaren benetako eraldaketa 1970eko hamarkadan izango da, izan ere forma eta diseinu berriko liburuak sortu eta joera pedagogiko eta aurrerapen teknikoek bultzatuko dira.

Testuliburu modernoan munduan teknologia berriek eragin handia izango dute, eta moldiztegiek eta ikonografia modu berriztatuek guztiz eraldatuko dute liburua. Zentzu honetan, Choppin-en esana (Bilbao, 2004: 252) gogoratzea nahi genuke. Honen ustez, harraminta polifonikoak dira testuliburuak, ikaslearentzako edukiak -idatziz eta ikonoen bide-azaltzeaz gain, eurok sakontzeko ariketak, edo irakurgaiak ere planteatu behar dituzte, eta guztia ahal denik eta modu erakargarrienean. Idatzizko testuan zein ikonoetan koloreak erabiltzen dira, polikromoak dira testuliburuak. Ikonografia asko darabilte, argazkia gehienbat, marrazkiarekin lagunduta. Edozelan ere, ikonoa eta testu idatzia, biak batera irakurri behar dira, ikonoaren ohiko laguntza rola aldatu egin baita, mezu formala nabarmendu edo aldatu egin dezake eta. Testuliburuaren edukia alde batera utzita, Silvina Casablancasek (2001: 3) honako hau dio irudiaren inguruan:

La imagen tiene vida propia, la imagen tiene una especificidad que debe ser enseñada y aprendida. No sólo recrea la página de un libro, sino que puede detonar (o no) la subjetividad, la sensibilidad de un individuo o transmitir información (resaltando la parte objetiva), siempre y cuando se consideren en el acto pedagógico los aspectos inherentes a su funcionalidad en las páginas de un libro.

Silvina Casablancas-ek (2001: 3) gehiago dakar, Santos Guerrasen aipu honen bidez: “La imagen no sirve únicamente para reforzar, aclarar, subrayar lo que la palabra manifiesta”. Hau da, irudia ez da zertan beti idatziaren menpe egon behar, berak bere esangura dauka.

Orain arte ikonografiari buruz aipatutako guztiagatik laburbildu daiteke, irudiak testu idatziak bezala, garrantzi handia daukala. Hori horrela, urteak aurrera egin ahala, ikonografiaren erabilerak gora egin du eta ikergai bihurtu da testuliburuetan.

1.4. Generoa, sexua, hezkidetzeta eta curriculumua Euskal Herrian

Generoaren kontzeptuaren bilakaera historikoki Murgibetik (2009: 2) jasotzen dugu ondoren azalduko dugun moduan. 1955. urtetik aurrera, generoa analisi-kategoria gisa erabili da gizarte-zientzietan. John Money antropologoak proposatu zuen genero-rola hitza erabiltzea sozietateak gizon eta emakumeei esleitutako portaerak deskribatzeko. 1968. urtean, Robert Stoller psikologoak, sexu-identitatearen nahasteei buruz egindako ikerketetan, genero-identitatea definitu zuen, eta ondorioztatu zuen identitatea ez dagoela sexu biologikoaren menpe, baizik eta erabat lotuta dagoela jaiotzatik bi generoei esleitu zaizkien esperientzia, erritu eta ohiturei.

70eko hamarkadan anglosajar feministek genero kontzeptua finkatu zuten, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak sozialak direla eta ez biologikoak aldarrikatzeke.

80ko hamarkadan, berriz, gizarte zientzietako diziplina ezberdinak genero kontzeptua erabiltzen hasi ziren, generoa, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun biologikoak zirela ohartu zirelako. Sexuen arteko bereizketan bereizgarri ziren alderdiak eremu sinboliko, kultural eta historikoan jarri zituzten.

Hala ere, Victoria Sau-k (1990: 134) honako ideia dauka generoari buruz:

Las causas de las diferencias individuales y así mismo las sexuales encontradas por la Psicología fueran genéticas o culturales fue un dilema para ésta desde el principio y lo sigue siendo en nuestros días llegando a constituirse dos corrientes de pensamiento en dos terminos extremos: el genético- biofisiológico y el cultural ambiental, que se excluyen mutuamente

Azken urteotan, aldaketa handiak eman dira gizarte-zientzietan. Hona hemen sexua eta generoaren arteko desberdintasuna:

Sexua diogunean emakumeak eta gizonak desberdintzen dituzten ezaugarri biologikoak aipatzen ari gara, desberdinak baikara sexuaren ikuspuntutik.

Generoak, maskulinitasuna eta feminitasuna eraikitzekeo prozesu psikosozialari egiten dio erreferentzia. Prozesu hori pertsona baten sexua zein den jakiten denean

hasten da sarritan jaio baino lehen, eta sozializazio prozesuaren bidez eraikitzen da, pertsona horren izateko, sentitzeko eta jarduteko era markatuko duen rol bat esleitzen zaionean. Generoa testuinguru kultural, sozial politiko eta ekonomikoaren arabera da, eta honek gizon zein emakumeei ezarritako portaera eta funtzioak erakusten ditu.

Bestalde, hizkuntzak, gizarte-eraikuntza gisa, kulturaren oinarritzko igorle gisa, une bakoitzaren errealitatea islatzen du. Eta mendebaldeko kulturaren bi alderdiren eragina du, alde batetik androzentrismoarena, eta bestetik, sexismoarena. Androzentrismoa gizonak munduaren gune eta neurri bezala azaltzen duen pentsaera da. Emakumeak gizonen mendeko dira eta ez dira bere buruaren jabe. Sexismoa, aldiz, pertsonen haien sexua kontuan hartuta balore, rol eta gaitasun ezberdinak ematea da. Sexismoak, horregatik, gizonena den guztia aitortu, aintzat hartu eta horri guztiari garrantzia ematen dio; emakumeena, berriz, gutxiagotzat jotzen du. Horrela, hizkuntzaren erabilera sexista eta androzentrikoa egiten dugu kultura androzentrikoa eta sexista batean bizi garelako, hain zuzen ere.

Aipatutako prozesu honek ondorio garrantzitsuak ditu identitate pertsonalaren eta sozialaren garapenean.

Hezkidetzaren prozesu bat da (Murgibe, 2009: 16), norberaren gaitasunak eta jarrerak garatzea helburua duena, estereotipo eredu femenino eta maskulinoak, tradizionalak eta zaharkituak alde batera utziz. Pertsonen aukera ematen die baloreak, gaitasunak eta jarrerak askatasunez hautatzeko, maskulinitatearen eta feminitatearen ereduetatik kanpo, eredu horiek nortasunaren garapen osorako muga baitira. Hori horrea, hezkidetzaren helburua da haurren garapen osoa lortzea, bi sexu ezberdin dituen errealitateetik abiatuta baina garapen pertsonal komunerantz, konfliktoan ez dagoena.

Europar Batasunak hezkuntza legeari begira, ildoak markatzen ditu, eta horren ondoren, estatu bakoitzak kasu honetan estatu Espainiarrak, beraren kompetentziak ezartzen ditu eta hezkuntza legeak indarrean jartzen ditu, curriculum propio bat osatzen, beti ere Europar Batasunak ezarritako baldintzak errespetatuz. EAE-k hezkuntza kompetentzia batzuk ezartzen ditu eta beraren curriculum propioa osatzen du.

Hezkuntza legeak etengabe aldatzen dira. Hurrengo lerroetan, EAE-n egon diren hezkuntza legeak aipatu, eta hauen curriculum ofizialetan Haur Hezkuntzan eman den hezkidetzaren trataera edo mentzioen berri emango dugu.

Frankismo garaian, 1970. urtean, Hezkuntza Lege berria (LGE) plazaratu zen. Lege honen bitartez, hezkuntza mistoa orokortuz joan zen espainiar Estatuan. eskola publikoetan zein eskola pribatu aurreratuenetan, adibidez, ikastolen kasua.

Ondorengo legea, LOGSE (Espainiako Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorraren Lege Organikoa) 1990eko urriaren 3an onartu zen. Lege honetan, honako hau aipatzen da “Preámbulo” atalean, 5. paragrafoan:

La educación permite, en fin, avanzaren la lucha contra la discriminación y la desigualdad, sean estas por razón de nacimiento, raza, sexo, religión u opinión, tengan un origen familiar o social, se arrastren tradicionalmente o aparezcan continuamente con la dinámica de la sociedad.

LOCE, Kalitatezko Hezkuntzako lege organikoa da. 2002. urtera arte estatuko eskola publiko zein kontzertatuetan modalitate mistoa onartu izan zen soilik. Urte horretan bertan, ordea, LOCE legea plazaratzearekin batera, ikastetxe berezituak kontzertatzeko aukera zabaldu zen. Hala ere, lege hau ez zen indarrean jarri.

LOE 2006-ko Hezkuntzako Lege Organikoak, nesken eta mutilen artean eskubide eta aukera berdinak agintzen du Lehen Hezkuntzan eta ikasketa ez unibertsitario guztietan. LOE-k, Eskola Kontseilu guztietan kide bat berdintasunaz arduratzeko agintzen du. Eskolak, kultura guztietako nesken eta mutilen arteko elkarbizitza berdintsua indartu behar du eta kultura guztietako umeei beren identitatea izaten lagundu behar die, sexu bereizketarik egin gabe. Honela dio LOE legeak, 23. artikuluan, Objetivos, c) atalean:

Valorar y respetar la diferencia de sexos y la igualdad de derechos y oportunidades entre ellos. Rechazar estereotipos que supongan discriminación entre hombres y mujeres. En ningún caso habrá discriminación por razón de nacimiento raza, sexo, religión, opinión o cualquier otra circunstancia personal o social.

2013ko urriaren 10ean, Espainiar kongresuan “Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organiko” (LOMCE) onartu egin zen. Hainbat neurrien artean, sexu araberako bereizketa eredutzat duten ikastetxeak bultzatzearena daukagu. Honela azaltzen du LOMCE dokumentuak, hain zuzen ere:

El apartado 3 del artículo 84 queda redactado de la siguiente manera: En ningún caso habrá discriminación por razón de nacimiento, raza, sexo, religión, opinión o cualquier otra condición o circunstancia personal o social. No constituye discriminación la admisión de alumnos o la organización de la enseñanza diferenciada por sexos (...). En

ningún caso la elección de la enseñanza diferenciada por sexos podrá implicar para las familias, alumnos y centros correspondientes un trato menos favorable ni una desventaja a la hora de suscribir conciertos con las Administraciones educativas o en cualquier otro aspecto (...).

Hezkuntza legeetan aipatutako guzti horiek kontuan harturik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta kultura Sailak, Hezkuntza-sisteman hezkidetzak eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana egin dute (2013:7). Plan honek hezkuntza-sistema du xede, derrigorrezko Hezkuntzan hain zuzen ere. (L.H. eta DBHen), Haur Hezkuntza eta Batxilergoa, aldi honetarako: 2013-2014 ikasturteetik 2015-2016 ikasturte-aldirako.

Gida Planaren helburua transformazio-prozesua sustatzea da, eskola mistoko eredutik hezkidetzan oinarritutako eskolaren eredura aurrera egiteko, sexismoak egiten duen edozein indarkeriari aurre egiten laguntzeko. Eskolak ikasleen arteko botere-harremanak aldatzen lagundu dezake, behar diren aldaketak eginez, oinarritutako sozializazioa ziurtatzeko. Sozializazio horrek identitate-aniztasuna errespetatu behar da, eta nesken eta mutilen garapen pertsonala ahalbidetu. M Jose Urruzula Zabalzak (2013: 9) honako hau esaten du ikusmolde androzentrikoari buruz eta errealitate globalari buruz:

Hezkidetzan oinarritutako filosofiatik abiatuta egiten diren analisietan, ikusmolde androzentrikoak baliogabetu behar dira lehenik, partzialak direlako eta objetibotasunik ez dutelako bederen, eta errealitate globalaren interpretazio zientifikoak egiteko ahalegina egin behar da.

Hori horrela, plan honen helburua ikastetxeak ekimen orokorra eta estrategikoa egitea da, genero-indarkeriarekin loturiko hezkidetzak, berdintasuna eta prebentzioa lantzeko.

Atal honetan testuliburuari, ikonografiari, curriculumari eta generoari heldu badiogu, jarraian aurkeztutako testuliburuan lanbidearen azterketan zer metodologia erabili dugun azalduko dugu.

2. Metodologia

Zer egin dut?

Hasiera batean ez nekien zer egin. Gaia zein izango zen zehaztea lehengo pausua zela pentsatu nuen. Hortaz, lana jorrazteko hainbat gune desberdinetara joan nintzen material ezberdina lortzeko asmoz. Lehenengo eta behin, Leioako liburutegira joan nintzen. Bertan, haur hezkuntzako hainbat testuliburu topatu nituen, eta horien artean, aukeraketa zehatza egin nuen. Testuliburuez aparte, liburu ezberdinak topatu nituen. Batzuk bertan eskuratu nituen baina beste batzuk Gasteizko aulariotik hartu nituen. Ondoren, Berritzegune ezberdinetara joan nintzen informazio gehiago lortzeko. Baina material bilketan eginiko lana ezerezean geratu zen. Hala ere, interneten arakatzan hasi nintzen eta artikulu, liburu zein lan ezberdinak topatu nituen.

Zer egingo dut?

Marko teorikoari zein ikerketari emango diot garrantzi gehiena. Horren ondorioz, liburuak irakurtzen eta artikuluak aztertzen emango dut nire lanaren zati handiena. Atal horietan sakondu ahala, “Urtxintxa” testuliburuaren hustuketa sistematikoari egin diot, ikonoz eta testuz, Excell programa erabiliz.

Hortaz, hauek dira nik frogatu nahi ditudan hipotesiak:

- Haur Hezkuntzako testuliburuan emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasuna ematen den edo ez.
- Haur Hezkuntzako testuliburuan emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasuna ematen al den lanbideen agerpenari erreparatuz.

Aurreikusten dudana emaitza.

Emaitza pentsakorra izango dela pentsatzen dut., aztertutako testuliburuan ateratako datuek gaur egungo gizartean dauden ezberdintasunak agerian utziko dituztelako. Gainera, hezkuntzaren garrantzia kontuan hartuta aurrera pausu txikia izatea espero dut lana eta sexismoaren arteko desberdintasunak desagertu daitezen.

3. Lanaren garapena

Testuliburuan agertzen den ikonografia zelan agertzen den ikusi eta aztertu behar da. Gradu amaierako lan honetan, “Urtxintxa 4 urte” testuliburuaren izaera ideologikoaren ikerketa egingo da, eta generoaren trataerara mugatuko da, sarreran aipatutako bi

hipotesi kontuan hartuko direlarik. Alde batetik, Haur Hezkuntzako testuliburuan emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasuna ematen den edo ez frogatuko dugu eta bestetik, Haur Hezkuntzako testuliburuan emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasuna ematen al den lanbideen agerpenari erreparatuz.

Genero femenino eta maskulinoek lan munduan dituzten rolak aztertzen dira. Horretarako, “Urtxintxa 4 urte” testuliburuko ilustrazioa aztertuko delarik. Testulibururen argitaletxea Elkar da eta 12 liburuxkaz osatuta dago:

- 1) Ikastola (*Berriro Ikastolara*).
- 2) Etxea (*Etxe poxpola*).
- 3) Udazkena (*Firin-faran*).
- 4) Gabonak (*Horra! Horra!*).
- 5) Gorputza (*Handitzen, handitzen*).
- 6) Inauteriak (*Kinkurankin, sorginak ipurdia zikin*).
- 7) Oihaneko animaliak (*Dulun-dulunda. Elefantea non da?*).
- 8) Ogibideak (*Zertan? Lan eta lan*).
- 9) Auzoa erosketak (*Txotxak txotx*).
- 10) Udaberrian (*Loretxin, loretxo*).
- 11) Ogigintza (*Ña-ñam, ogia eta pastela jan!*).
- 12) Urarekin jolasean (*Glu-glu-glu-glu*).

Ikerketa hau egiteko Ogibideak (*Zertan? Lan eta lan*) liburuxka aukeratu da. 17 orrialdez osatuta dago. Ikonoak hustu dira, kuantitatiboki eta kualitatiboki, eta dagoen testua ere, eskasa izan arren.

Testuliburu hau, 2000. urtekoa izanda ere, hainbat ikastetxeetan erabili ohi da Arrigorriagako eskolan, nik practicum III egin dudan ikastetxea. Horregatik, nahiz eta zaharra izan erabiltzen jarraitzen denez ikerketa egitea interesgarria iruditu zait.

Analisi-unitatea testuliburuan agertzen diren pertsonak eta pertsonaiak dira. Hiru tipologia ezberdinetan sailkatuz: marrazkiak, argazkiak eta testua, eta hiruretan femenino, maskulino eta mugagabe presentzia aztertu da. Mugagabeen artean, pertsonak eta pertsonaiak aurki ditzakegu. Agertzen diren pertsonaia eta animalia guztiak mugagabetzat hartu dira, eta pertsonen sexua ez denean ondo bereizten ere bai.

Bestalde, esan beharra dago, testuliburuan idatzizko osagarriak daudela eta hauek ere kontutan izango ditudala ikerketa gauzatzerako orduan.

Hustuketa egiteko, lehenik eta behin testuliburuan agertzen diren ikono guztiak kontutan hartu ditugu eta hauek zenbakien bidez identifikatu ditugu. Ondoren, ikerketarekin jarraituz, bakoitzaren atal desberdinak sortu ditugu, analisi orokor bat izateko asmoz: Testuliburuaren urtea, argitaletxea, ikonoen ogibidea, emakumezkoen ikonoak, gizonezkoen ikonoak, mistoa, mugagabea, zerbitzu publikoan, taldean edo bakarka agertzen diren.

Ikerketa gauzatzeko, jarraian agertuko diren pertsona eta pertsonaien alderdi hauek aztertu dira:

- Emakumezko, gizonezko eta mugagabeen presentzia eta maiztasuna.
- Pertsona eta pertsonaien garrantzia.
 - Mistoen agerpena orrialdeko.
- Lanbide motak genero ikuspuntutik. Orokorra eta zehatza.
- Lan-eremua. Eremu itxiak eta irekiak generoarekiko.
- Generoari loturiko testuaren agerpena.

4. Emaitzak eta ondorioak

4.1. Emakumezko, gizonezko eta mugagabeen presentzia eta maiztasuna.

Bi ikono hartu dira: marrazkia eta argazkia. 171 ikonoen artean, argazki bakarra dago eta gainontzeko guztiak marrazkiak dira.


Orotara, 173 pertsona eta pertsonaia agertzen dira. Horietatik, 38 (%22,54) emakumezkoak dira, 104 gizonezkoak (%60,11), eta 30 (%17,34) mugagabeak, 1.go taulak aditzera ematen duen moduan.

1. taula: Marrazki eta Argazkien emakumezko eta gizonezkoen kopurua.

	Femenino	Maskulino	Mugagabe	Guztira
Irudiak	39	101	30	170
Argazkiak	0	3	0	3
Guztira	39	104	30	173
%	%22,54	%60.11	%17,34	%100

Hurrengo 1.go grafikoan, argazki zein irudietan agerturiko emakumezko, gizonezko eta mugagabezkoen kopurua agertzen da.

1. grafikoa: Marrazki eta argazkietan agerturiko emakume eta gizonen kopurua.



1.go grafiko honek adierazten duenez, gizonezkoen kopurua emakumezkoena baino ia hiru aldiz handiagoa da. Ikus daitekeen moduan, gizonezkoen presentzia nabaria da. Gainera, argazki bakarra edukita gizonaren irudia bakarrik islatzen da, argazkian 3 gizonezko agertzen baitira.

Testuliburuko emakumezkoen ikonografian oinarrituz, argi ikusten da hauen presentzia urria dela.

4.2. Pertsonen eta pertsonaien garrantzia.

Pertsonaien garrantzia, testuliburuetan maiztasunarekin lotzen da, hots, zenbat eta aldi edo kopuru gehiagotan agertu, orduan eta garrantzi handiagoa izango du pertsonaiak.

Hau aztertzeko, testuliburuko orrialde bakoitzeko genero maiztasuna kontuan hartu da.

2. taula: Emakumezko eta gizonezkoen agerpena orrialdeko.

Orrialdeak	Emakumezkoak		Gizonezkoak		Mugagabe		Guztira
	Irudia	Argaz.	Irudia	Argaz.	Irudia	Argaz.	
Azala	9	0	29	0	8	0	46
1	6	0	5	0	6	0	17
2	0	0	4	0	1	0	5
3	0	0	8	0	1	0	9
4	0	0	0	0	1	0	1
5	6	0	10	0	2	0	18
1. Zenbatu gabekoa	0	0	8	0	0	0	8
2. Zenbatu gabekoa	0	0	9	0	0	0	9
3. Zenbatu gabekoa	1	0	9	0	1	0	11
7a	5	0	6	0	3	0	14
7b	0	0	0	0	1	0	1
8	0	0	0	0	0	0	0
9	0	0	0	0	1	0	1
10	0	0	0	0	1	0	1
11	0	0	0	3	0	0	3
12	8	0	6	0	2	0	16
13	4	0	7	0	2	0	13
Guztira	39	0	101	3	30	0	173
%	%22,54	%0	%58,38	%1,74	%17,34	%0	%100

2. taulari erreparatuz, gizonezkoen garrantzia orrialdeko nabarmena da. Ia orrialde guztietan hauek protagonista nagusiak baitira. Horren adibide garbia da, testuliburuko azala, 3, 4, 6, 7, 8, 9 eta 17 orrialdeak.

Testuliburuaren 2. eta 16. orrialdeetan ikusten da, emakumezkoen kopurua gizonezkoena baino handiagoa dela. Hala ere, esan beharra dago, kopurua oso txikia dela, emakumezko ikono bat gehiago baino ez dago.

Liburuaren 10. orrialdean, berriz, emakumezko eta gizonezkoen protagonismoa antzekoa da, nahiz eta gizonezkoen kopurua handiagoa izan.

Aipatzekoa da, testuliburu osoan argazki bakarra egonik, gizonezkoak bakarrik ageri direla eta %1,75ko portzentajea dute.

Mugagabearen garrantziari dagokionean, aipatzekoa da, testuliburuan zehar pertsonaia garrantzitsu bat dela, hau da, “Txirritx”. Pertsonaia honek eragin handia izan dezake haurrengan, euren erreferentea izanik.

“Txirritx” testuliburuko 7, 8, 9, 12 eta 15 orrialdeetan izan ezik, beste guztietan agertzen da behin.

4.2.1. Agerpen mistoak orrialdeko.

Agerpen mistoak orrialdeko esaten denean, esan nahi da, orrialde berean emakumezkoak eta gizonezkoak elkarrekin agertzen direla.


2. taulari erreparatuz gero, testuliburuan agertzen diren mistoak orrialdeko, azala, 1, 5, zenbaki bakoa (kontuan izan behar da, honetan 10 pertsonetatik 9 gizon eta emakume bakarra agertzen dela), 7a, 12 eta 13 dira. Testuliburuko, 2, 3, 6, 1.go zenbaki gabekoa eta 11. orrialdeetan gizonezkoak soilik agertzen dira.

Aipatzekoa da, testuliburu osoan zehar ez dela emakumea bakarrik agertzen den orrialderik.

4.3. Lanbideak. Orokorra eta zehatza.

Atal honetan, orokorrean testuliburuan agertzen diren lanbideak aztertu dira. Guztira, 117 pertsonaien ikonoak lan egiten aurki ditzakegu. Gizonezkoen esparrua handiagoa denez, lan zabalpen handiagoa dute, 83koa hain zuzen ere. Lanean dauden emakumeak, ordea, 19 dira eta mugagabeak 15.

2. grafikoa: Lanean dauden pertsonaien agerpena



3. taulako datuek aditzera ematen dutenez, emakumezko, gizonezko eta mugagabeen artean ezberdintasun nabarmena dago. Gizonen agerpena, emakumeena baino 4 bider handiagoa da. %70,94koa hain zuzen ere. Emakumea eta lan egiten dagoen kopurua %16,24koa da, oso urria gizonezkoen ikonoekin konparatuz gero. Mugagabeak eta lanean dauden pertsona zein pertsonaiak %8,77 besterik ez dute osatzen.

3. taulako datuek esaten dutenez, 33 lanbide mota daude eta generoaren arabera sailkatu dira. Testuliburuan agertzen diren lanbideetatik 14 lanbide mota egokitzen zaie emakumezkoiei. Pertsonaia maskulinoei 23 mota ezberdin egokitzen zaizkie, mugagabeiei, aldiz, 7 dira.

3. taula: Ikonoen lanbideak generoaren arabera.

Lanbideak	Femenino	Maskulino	Mugagabe	Guztira
Bulegaria	4	2	0	6
Garbitzailea	2	0	0	2
Kale- Garbitzailea	1	2	0	3
Margolaria	1	1	4	6
Eskulangilea	1	4	2	7
Mekanikaria	2	0	3	5
Etxeko-gizona	0	1		1
Etxeko-andrea	1			1
Igeltseroa		9	1	10
Saltzailea		1		1
Argiketaria	1	2	1	4
Medikua	1	2		3
Udaltzaina		2	2	4
Lorzaina		1		1
Gidaria(turistikoa)		1		1
Suhiltzailea		3		3
Grabatzailea			1	1
Argazkilaria			1	1
Astronomoa		9		9
Lapurra		9		9
Ehiztaria		9		9
Jostuna		10		10
Baserritarra		4		4
Printzesa	1			1

Erregea		1		1
Autobus gidaria	1			1
Arotza		5		5
Sukaldaria		1		1
Irakaslea	1			1
Harakina	1			1
Dendaria		1		1
Arrantzalea		1		1
Argiketaria	1			1
GUZTIRA	19	83	15	117

Igeltseroa, astronomoa, ehiztaria, lapurra eta arotza dira maiztasun gehien daukaten lanbideak. Gehien errepikatzen diren lanbideak izanik, aipatzekoa da, lanbide hauetako pertsona guztiak gizonezkoak direla.

Arestian ikusi dugunez, lanean dauden emakumeen agerpena oso murrizta da. Egokitu zaizkien lanbideen artean, bulegaria, garbitzailea, kale-garbitzailea, etxeakoandrea aurki ditzakegu. Hauen lanbide guztiak aipatzea erraza da, testuliburuan agertzen diren 38 emakumeetatik 19, hau da, erdia lan egiten agertzen baitira.

3. taulako datuek esaten dutenez, gizonen kasuan, 25 lanbide ezberdin egokitzen zaizkie mota gehiago daude.

4.3.1. Lan eremua

Lan eremuari dagokionez, lanbideen harreman soziala hartzen da kontutan bi esparru nagusi izanik; lan eremu itxia eta lan eremu irekia. Lan eremu itxiari dagokionez, familia eta etxeari loturiko lanbideak izango lirateke eta lan eremu irekiak, ordea, kalean eta jendartearekin harremanetan agertzen direnak.

Hori horrela, gizonen %76,47 esparru publikoari begira lan egiten dutela agertzen da eta emakumeek, aldiz, %15,69.

3. taulako datuak ikusirik gizonezkoak espazio publikoaren gehiengoa (78 gizonezko) daukala ikusten da, eta horren ondorioz, gizonezkoek harreman sozialaren gehiengoa dute. Beraz, genero femeninoaren lan eremua itxiago izaten jarraitzen da, eta harreman

sozialetan gutxiengoa (16 emakumezko) dira. 117 ogibidetatik 16 bakarrik baitira espazio irekian lan egiten duten emakumeak.

4. taula: Eremu itxiko eta irekiko lanbideak.

Eremu itxiko lanak	Garbitzailea Etxeko-gizona Etxeko-andrea Baserritarra
Eremu irekiko lanak	Gainerakoak

4.4. Testuaren agerpena.

Atal honetan, testuaren agerpenari ematen zaio garrantzia. Hurrengo testu motak aurki ditzakegu: esaldiak, kartelak, seinaleak, bokadiloak (komikiena), zenbakiak, zenbakiak eta letrak, liburuak, abestiak eta hitzak. Hona hemen, testuliburuko orrialde bakoitzean agertzen den testua, testuliburuan maiuskulaz agertzen den moduan idatzita:

4. taula: Testuliburuan idatziz datorren testua.

Orrialdeak	Idatziz datorren testua	Testu mota
Azala	8.gaia	Esaldia
	ZERTAN? LAN ETA LAN	Esaldia
	KALE ZAHAR OSTATUA	Kartela
	STOP	Seinalea
	MATTIN FRUTAK ETA BARAZKIAK	Kartela
	PLAZA...	Seinalea
1go orrialdea	1	Zenbakia
	Lau ANAIK	Liburua
	TXIRRITXEN AZALPENAK	Esaldia
2.orrialdea	2	Zenbakia
	AURKITUKO OTE DUTE BEREN LANABESA?	Bokadiloa komikia
3.orrialdea	3	Zenbakia
	ERDIKO KOADROA BEHATU ETA...	Bokadiloa komikia
4.orrialdea	4	Zenbakia
	MARGO ITZAZU LAPURRAREN GILTZAK	Bokadiloa komikia
5.orrialdea	5	Zenbakia
	ZENBAT PERTSONAIA DIRA?	Bokadiloa komikia
	1, 2, 3, 4, 5, 6, 7.	Zenbakiak
	BAT, BI, HIRU, LAU, BOST, SEI, ZAZPI	Esaldiak
6. orrialdea	LAU ANAIK	Abestia

	LAU ANAIK BIZI ZIREN BETI LANEAN. LAURAK ETXETIK KANPORA URTE BETEAN. BERRIRO ELKARTU ZIREN EGUN BATEAN: LAU ANAIA, LAU LANBIDE, DENAK BAKEAN.	
	Egilea	Hitza
Ez da agertzen orrialdea	1, 2	Zenbakiak
	3, 4	Zenbakiak
7a. orrialdea	7a	Zenbakia eta letra
	BEHATU MOZTU ETA...	Bokadiloa komikia
7b. orrialdea	7b	Zenbakia eta letra
	...ITSATS ITZAZU ZATIAK	Bokadiloa komikia
	LANBIDEAK	Izenburua
8.orrialdea	8	Zenbakia
	GURAZOEN LANBIDEAK	Izenburua
	NIRE AMA...DA. NIRE AITA...DA.	Esaldiak
	ZENBAKIA	Esaldia
9.orrialdea	8	Zenbakia
	AUKERA EZAZU LANBIDE BAT ETA MARGOTU ZEURE BURUA LANBIDE HORRETAN	Bokadiloa komikia
10.orrialdea	10	Zenbakia
	1, 2, 3, 4, 5, 6.	Zenbakiak
	GUTXIENEZ HIRU TRESNA MARGOTZEKO GAI IZANGO ZARA?	Bokadiloa komikia
11.orrialdea	11	Zenbakia
	ARTELANA "Parket leuntzaileak", 1875 Gustave Caillebotte	Esaldia
12.orrialdea	12	Zenbakia
	GOXO-GOXO LITXARRERIAK (x 2)	Kartela
	ZER ARI DA GERTATZEN HEMEN?	Bokadiloa Komikia
13.orrialdea	13	Zenbakia
	ZEIN IKUSI DITUZU KALEAN?	Bokadiloa Komikia
	DENDARIA UDALTZAINA IGELTSEROA ARRANTZALEA GARBITZAILEA ETXEKOANDREA MEKANIKARIA SUHILTZAILEA ARGIKETARIA BULEGARIA BASERRITARRA AROTZA	Hitzak

Testuaren agerpenari dagokionean, aipatzekoa da, Haur Hezkuntzako lau urteko umeentzako testuliburua izanez gero, letra maiuskulak eta zenbakien agerpena nagusia dela. Zenbakiak 19 aldiz agertzen dira. Ia orrialde guztietan agertzen dira.

Bestalde, testuliburuan idatziz datorren testuari erreparaturaz, “LAU ANAIK” testuliburu osoan zehar behin eta berriro agertzen da, eta agertzen den izen bakarra mutil batena da, “MATTIN”.

Idatzita agertzen diren lanbideak honako hauek dira: Lapurra, arotza, dendaria, udaltzaina, igeltseroa, arrantzalea, garbitzailea, etxeandrea, mekanikaria, suhiltzailea, argiketaria, bulegaria, baserritarra. Aipatzekoa da, lapurra ogibidetzat hartuta dagoela.

5.1. Ondorioak

Frogatu nahi nituzkeen hipotesiak direla eta, baieztatu dezakegu bete direla:

1) Haur Hezkuntzako testuliburuan emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasuna ematen den edo ez:

Curriculumak azken urte hauetan berdintasunerantz aurrerapausoak eman arren, testuliburu honetan, argi ikusten da baliabide didaktiko gisa ez dituela gaurko curriculumak eskatzen dituen baldintzak (modu orekatuan behintzat) betetzen. Hau da, femenino eta maskulinoaren trataera ez da berdina testuliburu osoan zehar.

2) Haur Hezkuntzako testuliburuan emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasuna ematen al den lanbideen agerpenari erreparaturaz:

Nahiz eta, testuliburuetan genero femeninoa lan esparru guztietan kokatu, hauen presentzia txikia da genero maskulinoarena nagusi da eta. Hori horrela, genero maskulinoak lanbide askoren monopolizazioa edukitzen jarraitzen du, genero femeninoa gutxitua izanik.

Testuari dagokionean, testuliburuko letra larria nagusia da. Hau, haurren ulermena errazteko erabiltzen da. Aipatzekoa da, idatzita dauden lanbideen artean “ETXEKOANDREA” agertzen dela eta berriro ere sexismoa ematen da. Genero marka hau, curriculum ezkutu gisa agertzen da, bai irakasleentzako bai ikasleentzako.

Pertsonaia batzuk estereotipaturik agertzen dira:

- Printzesaren irudia guztiz estereotipatuta dago; neska polita, fina, errubioa... Marrazki hau neskengan erreferentea da.
- Lapurra lanbidetzat hartzea ez zait egokia iruditzen. Hau umeentzat erreferentea izango baita.
- Printzesa eta erregearen erabilera: Autoritatea ematen da, hau da hierarkia bat ematen da lanbideen artean.

Mugagabearen erabilerarekin curriculum ezkutua lantzen da. “Txirritx” pertsonaia topatzen dugu testuliburu osoan zehar. Pertsonaia hau, protagonista izanez eta testuliburuan zehar sarri agertzen denez, berak jasotako rola umeengan interes handiagoa sorraraziko dute, hau erreferentetzat hartuz. Pertsonaia hau, arratzat hartzen da.

Umeek ikonografiak transmititzen duen ideologia sexista barneratu dezakete. 4 urteko etapen, irudiek daukaten garrantzia kontutan hartuta, haurrak lanbideen ezaugarri estereotipatuak barneratu eta sexuaren araberako sailkapen bat egin dezakete. Lanbidearen hautaketari buruzko ideia estereotipatu eta diskriminatzailea erabiltzen jarraitzen da. Hortaz, oso garrantzitsua da ideia hauek ezagutzea eta agerian uztea. Agerian uzteak erraztu dezake gure ikasleek joera sexistarik gabeko hautaketa egin ahal izatea. Denbora behar duen prozesua bada ere, joerak berdintzen ari diren arren, hezkuntza sisteman, hainbat esparru ezberdinetan bezala, berdintasun biderako aurrerapausoak eta aldaketan eman behar direla argi dago.

Gaur egun oraindik gizartean nagusitzen diren balore patriarkalak Hezkuntza sisteman islatzen dira testuliburuaren bidez. Testuliburuetakako ikonografia da, umeei balio hauek barneratzen dizkietena, eta mutil eta nesken arteko bereizketa sustatzen dutena. Hortaz, guzti hau kontuan hartuta azken ideia gisa ezinbestekoa da aipatzea, ikerketa hau, ikerketa handi baten zati txiki bat besterik ez dela eta interesgarria izango litzatekeela honen inguruan ikerketa sakonagoa egitea.. Adibidez, Euskal Herri osoko ikerketa egitea, non Iparraldeko zein Nafarroako Haur Hezkuntzako liburuak aztertuko diren, edo argitaletxe ezberdineko liburuak aukeratu eta ikerketa berdina gauzatzea, edo “Urtxintxa” argitaletxeko liburuak aztertzea hiru urtetik bostera arte eta liburuxka guztiak kontuan harturik.

5. Erreferentzia bibliografikoak

APPLE, MICHAEL (1996): *El conocimiento oficial. La educación democrática en una era conservadora*. Barcelona, Paidós.

ARENAS, JOAQUIM eta ARENY, MARIA (1997). Ikastetxeko hizkuntza proiektua. *Soziolingüistika aldizkaria*, 24.zk, 29-52 orri. 2014-05- 22 hartuta hemendik: <http://www.soziolinguistika.org/files/Joaquim%20Arenas%20eta%20Mar%C3%ADa%20Areny.pdf>

BILBAO BILBAO, BEGOÑA (2004): Euskara: ikonografia bidezko ibilbidearen kronika, *Euskalingua*, 4, 252-257 orr. (On-line + CD-ROM).

BILBAO BILBAO, BEGOÑA (2006): Hezkuntzarako Eskubidea Genero Ikuspegitik: Emakumeen Errolak, in Naya, L. M., Dávila, P. (Coordinadores): *El derecho a la educación en un mundo globalizado (Tomo II)*, 87-98 orri. Espacio Universitario Erein, Erein, Donostia.

BLANCO, NIEVES (2001). La dimensión ideológica en los libros de texto. *Kiriki*, 50-56. 2014-05-2an hartuta hemendik: http://www.quadernsdigital.net/datos/hemeroteca/r_7/nr_497/a_6772/6772.pdf

CASABLANCAS, SILVINA (2001). En cuanto a las imágenes en texto escolares. Función, relevancia y características desde una perspectiva didáctica. *XII Congreso Nacional y I Iberoamericano de Pedagogía. Hacia el tercer milenio: Cambio educativo y educación para el cambio*. Tomo II, 303-304 orri. Editorial: FARESO, S.A. 2014-05-16an hartuta hemendik: http://www.silvinacasablancas.com/publicaciones/las_imagenes_en_textos_escolares_Silvina_Casablancas.pdf

EUSKO JAURLARITZA. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta kultura Saila (2013). *Hezkuntza-sisteman hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzu nagusia. 2014-05-2an hartuta hemendik: http://www.irekia.euskadi.net/assets/attachments/3838/behin_betikoa_hezkidetzeta_lantzeko_gida_plana.pdf?1385554387

MEC (1990). Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre de 1990, de Ordenación General del Sistema Educativo. 2014-5-28an hartuta <http://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-1990-24172> orritik

MEC (2006). LEY ORGÁNICA 2/2006, de 3 de mayo, de Educación. 2014-5-28a hartuta <http://www.boe.es/boe/dias/2006/05/04/pdfs/A17158-17207.pdf> orritik.

MEC (2013). Ley Orgánica 8/2013, de 9 de diciembre para la mejora de la calidad educativa. 2014-5-28 hartuta <http://www.boe.ges/boe/dias/2013/12/10/pdfs/BOE-A-2013-12886.pdf> orritik.

MURGIBE S.L. (2009). *Altsasuko udaleko berdintasun gaitegia*. Altsasu. 2014-05-3 hartuta hemendik: <http://www.alsasua.net/upload/docs/11.berdintasun%20gaitegia.pdf>

PEREZ URRAZA, KARMELE (2003). *Zientzia, teknologia eta lanbideen agerpena Euskal Herriko testuliburuetan*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea-Universidad del País Vasco (EHU-UPV).

PEREZ URRAZA, KARMELE. (2004). *Curriculum eta testuliburua Euskal Herrian*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

PRENDES ESPINOSA, MARÍA PAZ (1998) Análisis de imágenes en textos escolares: descripción y evaluación. *Comunicación y pedagogía: Nuevas tecnologías y recursos didácticos*, 101-108 orri. 2014-04-24 hemendik hartuta:
http://www.lmi.ub.es/te/any97/prendes_sp/


SAU, VICTORIA (1990). *Diccionario ideológico feminista*. Barcelona: Icaria.

TORRES, JURJO (1992). *El currículum oculto*. Madrid: Morata.

VICARIO FERNANDEZ, NAHIA (2013). Neskak, mutilak eta LOMCE. ‘Wert legeak’ ikastetxe segregatuak sustatuko ditu, patriarkatua indartzeko era eraginkor bat erabiliz. *Pikara magazine*. 2014-05-2an hartuta hemendik:
<http://www.pikaramagazine.com/2013/11/neskak-mutilak-eta-lomce/>

ERANSKINAK


1. eranskina. Testuliburuaren azala.



2. eranskina. Testuliburuaren 1. orrialdea.




3. eranskina. Testuliburuaren 2. orrialdea.



4. eranskina. Testuliburuaren 3. orrialdea.



5. eranskina. Testuliburuaren 4. orrialdea.



6. eranskina. Testuliburuaren 5. orrialdea.

ZENBAT
PERTSONAK
DIRA?

BAT BI HIRU LAU BOST SEI ZAZPI

5

7. eranskina. Testuliburuaren 1. Zenbatu gabeko orrialdea.

LAU ANAIA BIZI ZIREN
BETI LANEAN.
LAURAK ETXETIK KANPORA
URTE BETEAN.
BERRIRO ELKARTU ZIREN
EGUN BATEAN:
LAU ANAIA, LAU LANBIDE,
DENAK BAKEAN.


LAU ANAIAK

Egilea:

8. eranskina. Testuliburuaren 2. Zenbatu gabeko orrialdea.



9. eranskina. Testuliburuaren 3. Zenbatu gabeko orrialdea.



10. eranskina. Testuliburuaren 7a. orrialdea.



11. eranskina. Testuliburuaren 7b. orrialdea.



12. eranskina. Testuliburuaren 8. orrialdea.

NIRE GURASOEN
LANBIDEAK

NIRE AMA _____ DA


NIRE AITA _____ DA

8

TESTULIBURUA

The worksheet is titled 'NIRE GURASOEN LANBIDEAK' (My Parents' Activities) in red. It features two large, empty rectangular boxes with gold borders for writing. To the left of the top box is a label 'NIRE AMA' followed by a white box and 'DA'. To the left of the bottom box is a label 'NIRE AITA' followed by a white box and 'DA'. On the right side, there is a small white box with a red dot above it, and below it, a green box containing the number '8'. At the bottom center, there is a blue and white label that says 'TESTULIBURUA'.

13. eranskina. Testuliburuaren 9. orrialdea.



14. eranskina. Testuliburuaren 10. orrialdea.



15. eranskina. Testuliburuaren 11. orrialdea.



ARTELANA "Parket leuntzailleak", 1875
GUSTAVE CALLEBOTTE

16. eranskina. Testuliburuaren 12. orrialdea



17. eranskina. Testuliburuaren 13. orrialdea.

ZEIN IKUSI DITUZU KALEAN?

 <p>GARBITZAILEA</p>	 <p>BULEGARIA</p>	 <p>BASERRITARRA</p>	 <p>SUHILTZAILEA</p>
 <p>DENDARIA</p>	 <p>UDALTZAINA</p>	 <p>IGELTSEROA</p>	 <p>ARRANTZALEA</p>
 <p>ARBEKETARIA</p>	 <p>ETXEKOANDREA</p>	 <p>MEKANIKARIA</p>	 <p>AROTZA</p>

13